# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-2433

AGINDUA, 1999ko maiatzaren 14koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Estatistika Erakundea erakunde autonomoaren kontratazio-espedienteetarako kontratazio-mahaia ezartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak, 4. artikuluan, zehazten du sail bakoitzean, eta, beharrezko balitz, erakunde autonomo bakoitzean, kontratazio-mahai bakar bat eratuko dela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta dagokion saileko sailburuak batera emandako agindu baten bidez.

Horren arabera, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak irizpena eman ondoren,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Euskal Estatistika Erakundeko kontratazio-mahaia.

1.– Zuzendaritzari atxikita, Euskal Estatistika Erakundeko kontratazio-mahaia eratzen da, erakunde horren espedienteei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko 5. eta 7. artikuluetan jasotako egitekoak burutu ditzan, artikulu horietan jasotako jardute-eremuan.

2.– Aipatutako mahai horrek honako kide hauek izango ditu:

a) Mahaiburua: Errolda, Gidazerrenda eta Landa-Lan Arloko burua. Lanpostu hori hutsik badago -edo burua kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago-, Ekonomi Estatistiken Arloko arduradunak ordezkatuko du.

b) Mahaikidea: espedienteari hasiera ematea eskatu duen arloko arduraduna.

c) Hiru mahaikide: bata, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari gisa; beste bat, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari gisa, eta bestea, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari gisa. Azken hori informatikazko ondasun eta zerbi-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-2433

ORDEN de 14 de mayo de 1999, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se establece la mesa de contratación para los expedientes de contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat).

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispone, en su artículo 4, que en cada Departamento y, en su caso, Organismo Autónomo, se creará por Orden conjunta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y del Consejero del Departamento correspondiente, una única mesa de contratación.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Mesa de Contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat).

1.– Adscrita a la Dirección se crea la Mesa de Contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat) para el ejercicio de la funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 5 y 7 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes del Organismo.

2.– La referida Mesa estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: El responsable del área de censos, directorios y trabajos de campo. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será sustituido por el responsable del área de estadísticas económicas.

b) Vocal: El responsable del área a cuya instancia se ha incoado el expediente.

c) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación y, otro, de la Dirección de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes

tzuei buruzko espedienteetan baino ez. Hirurak kasuan kasuko titularrek izendatuko dituzte, 136/1996 Dekretuko 6. artikuluko 5. paragrafoan jasotako kasuetan eta paragrafo horretan jasotako arauei jarraiki.

d) Mahaikide-idazkaria: Lege-Administrazio Arloko arduraduna; lege-aholkulari eta mahaiko idazkari lanak egingo ditu, eta hitz eta botoa izango ditu.

*2. artikulua.–* 136/1996 Dekretuko 6. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, agindu honetan izaera bereziz egiten ez diren izendapenak eta jasotzen ez diren ordezkatzeak, halakorik balego, Euskal Estatistika Erakundeko zuzendariak erabakiko ditu, agindu honetan bestelakorik zehaztu ezean. Izendapen horiek egiterakoan, kontuan izango da izendatuak ahalik eta gutxien aldatu behar dutela; horrelakorik balego, espedientean jasota utzi beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratuko da Ogasun eta Herri Administrazio, eta Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuen 1996ko uztailaren 12ko Aginduaren 2. artikulua. Agindu horren bidez, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza saileko eta Euskal Estatistika Erakundeko kontratazio-mahaiak eratu ziren.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko maiatzaren 14a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares, en los supuestos y con el régimen previsto en el párrafo 5 del artículo 6 del Decreto 136/1996.

d) Vocal-Secretario: El responsable del área jurídico-administrativa, que ejercerá de Asesor Jurídico y Secretario de la Mesa con voz y voto.

*Artículo 2.–* Conforme a lo dispuesto en el párrafo 2 del artículo 6 del Decreto 136/1996, las designaciones, en su caso, no efectuadas con carácter singular, y las suplencias no previstas, en la presente Orden, serán acordadas por la Directora de Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat), salvo que, en la presente Orden se diga de otra cosa. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Queda derogado el artículo 2 de la Orden 12 de julio de 1996, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, de creación de las Mesas de Contratación del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y del Euskal Estatistica-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de mayo de 1999.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAN.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-2434

213/1999 DEKRETUA, maiatzaren 11koa. Dekretu honen bidez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena arautzen da.

Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legea da Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren jatorria. Hain zuzen ere, lege horretako 70. artikuluan kooperatibak eta haien erakundeak sustatzeko eta ordezkatzeko organo nagusitzat jo zen Kontseilua.

Dagoeneko bide luzea egina du Kontseiluak. Hasiera batean, legeak agindutako egitekoak betetzeaz gain,

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-2434

DECRETO 213/1999, de 11 de mayo, por el que se regula el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi.

El Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi tiene sus orígenes en la Ley 1/1982, de 11 de febrero, sobre Cooperativas, donde en su artículo 70 se constituía como máximo órgano de promoción y representación de las Cooperativas y sus organizaciones.

En un primer momento de su ya larga historia, además de las otras funciones que la Ley le atribuía, ver-